

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2025eko urria

2025eko urrian Euskal AEko hotel-establezimenduetako ostatu-gauak % 4,8 egin dute gora 2024ko urriaren aldean

Hotelen gelakako betetze-maila % 76,6koa izan da, eta hotelen ADRa (eguneko batez besteko tarifa) 124,5 eurokoa

Eustaten datuen arabera, **2025eko urrian** Euskal AEko hotel-establezimenduetan % 5,1 igo dira sarrerak eta % 4,8 ostatu-gauak, urte arteko terminoetan. Erregistratutako 362.433 sarrerek 716.818 ostatu-gau izatea eragin dute guztira.

Sarreraren % 49,4 eta ostatu-gauen % 52,1 jatorri atzerritarrekoak izan dira; hala, sarrerak % 4,4 eta ostatu-gauak % 7,7 igo dira, urte arteko terminoetan.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak eta batez besteko egonaldia. Urria 2025

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2025/10	m/m-12 (%)	2025/10	m/m-12 (%)	2025/10	2024/10
EUSKAL AE	362.433	5,1	716.818	4,8	1,98	1,98
Estatukoak	183.213	5,9	343.282	1,9	1,87	1,95
Atzerritarrak	179.220	4,4	373.536	7,7	2,08	2,02
Araba/Álava	45.835	-1,6	100.194	6,8	2,19	2,01
Estatukoak	30.644	-1,2	63.469	0,8	2,07	2,03
Atzerritarrak	15.191	-2,5	36.725	19,0	2,42	1,98
Vitoria-Gasteiz	32.919	-5,7	78.392	7,1	2,38	2,10
Bizkaia	168.740	10,9	322.192	8,6	1,91	1,95
Estatukoak	87.819	11,3	158.208	6,4	1,80	1,89
Atzerritarrak	80.921	10,5	163.984	10,8	2,03	2,02
Bilbao	114.576	13,7	224.979	10,3	1,96	2,02
Gipuzkoa	147.858	1,3	294.432	0,5	1,99	2,01
Estatukoak	64.750	2,6	121.605	-2,8	1,88	1,98
Atzerritarrak	83.108	0,2	172.827	2,9	2,08	2,03
Donostia / San Sebastian	95.857	-2,9	200.604	0,2	2,09	2,03

M/m12 Behatutako azken hilabetean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Azaroaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Arabaren 45.835 sarrera eta 100.194 ostatu-gau erregistratu dira, hau da, sarreretan urte batetik bestera % 1,6ko jaitsiera izan da, baina ostatu-gauetan % 6,8ko igoera. Gipuzkoan sarrerak % 1,3 igo dira eta ostatu-gauak % 0,5, guztira 147.858 sarrera eta 294.432 ostatu-gau izan direlarik. Bizkaian, 2025eko urrian, 168.740 sarrera erregistratu dira, 2024ko urrian baino % 10,9 gehiago, eta 322.192 ostatu-gau, aurreko urteko hilabete berean baino % 8,6 gehiago.

Hiriburuen arabera, sarreraren kopuruak behera egin du Gasteizen (% 5,7) eta Donostian (% 2,9); Bilbon, berriz, gora egin du (% 13,7). Ostatu-gauetarako dagokienez, aurreko urteko urriaren aldean, % 0,2 igo dira Donostian, % 7,1 Gasteizen, eta % 10,3 Bilbon.

Orrialdea: 1(3)

Euskal AEko hotel-establezimenduetan batez besteko egonaldia, 2025eko urrian, 1,98 egunekoa izan da, aurreko urteko hil berean izandakoaren oso antzekoa¹.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Urria 2025

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2025/10	p.p. *	2025/10	p.p. *	2025/10	m/m-12 (%)	2025/10	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	62,1	1,9	76,6	1,5	124,53	7,9	95,41	10,0
Araba/Álava	58,8	3,2	79,9	6,4	99,98	9,9	79,84	19,5
Vitoria-Gasteiz	58,9	3,3	84,1	7,4	85,03	17,9	71,55	29,2
Bizkaia	62,1	3,4	76,7	1,3	122,74	6,1	94,15	7,9
Bilbao	68,5	4,0	84,1	0,7	137,70	6,5	115,74	7,4
Gipuzkoa	63,2	-0,2	75,4	-0,1	135,51	9,7	102,17	9,6
Donostia / San Sebastian	72,4	1,5	83,6	0,8	162,41	10,7	135,74	11,7

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Azaroaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Urrian okupazio-maila, Euskal AE osoan, % 62,1ekoa izan da plazen arabera neurtuta, eta % 76,6koa logelen arabera neurtuta. 2024ko urriarekin alderatuta, ehuneko 1,9 eta 1,5 puntu igo dira, hurrenez hurren.

ADR edo eguneko batez besteko tarifa (bainugela duen logela bikoitz bati aplikatua, ostatu hutseko erregimenean) 124,5 eurokoa izan da 2025eko urrian Euskal AEn, hau da, % 7,9ko igoera aurreko urteko urriarekin alderatuta. ADRa 135,5 eurotan kokatu da Gipuzkoan, 122,7 eurotan Bizkaian eta 100,0 eurotan Araban. Hiriburuen arteko aldeak are handiagoak izan dira: ADRa 162,4 eurokoa izan da Donostian, 137,7 eurokoa Bilbon eta 85,0 eurokoa Gasteizen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetan, 2025eko urrian, RevPar edo logela eskuragarri bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak 95,4 euro izan dira, aurreko urteko hil berean baino % 10,0 handiagoa.

Urteko metatua

Aurtengo orain arteko aldi metatuan (**2025eko urtarrila-urria**), aurreko urteko aldi metatu beraren aldean, sarrerak % 3,5 handitu dira eta ostatu-gauak % 4,0. Batez besteko egonaldia hamar hilabetezko tarte horretan 2,00 egunekoa izan da 2025. urtean, aurreko urteko aldi berean ikusitako 1,99 egunen oso antzekoa.

Okupazio-maila, urtean igarotako hamar hilabeteetan, % 60,6koa izan da plazen arabera neurtuta, eta % 72,1ekoa logelen arabera neurtuta, aurreko urteko aldi metatu berekoak baino ehuneko 0,7 eta 0,8 puntu gainetik, hurrenez hurren.

¹ Batez besteko egonaldia bidaiariak gaua igarotzen duten establezimenduetan batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn ematen duten egonaldi osoaren iraupenari.

Informazio-oharra

2025eko urrian hotelen ETHren erantzun-tasa % **91,4**koa izan da. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal A Eko turismoko datu-esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62